



UPV/EHU-KO EUSKARA PROBAK (2021eko ekaina)
AZTERKETARIENTZAKO JARDUNBIDEA

AHOZKO PROBA

Nork: proba idatzia gainditu duten azterketariek.

Nola eta noiz egingo da ahozko proba: Ahozko proba **BLACKBOARD COLLABORATE** plataforma digitalaren bidez egingo da, 2021eko uztailaren 4an, idatzizko emaitzekin batera azterketari bakoitzari esleituko zaion orduan (goiz partean izango da) eta emango zaion web-loturan sartuta.

Zer erakutsi behar duen: Nortasun Agiria, konexioaren hasieran.

Nola egin behar den: ahozko azterketak bi zati izango ditu:

1. **Eskola ematea:** azterketariak bere jakintza-arloko gai bat azalduko du, ikasleei ariko balitzaie bezala, berak nahi duen gaia, euskara batuan, 7-8 minutuan. Gai hori aldeztu aurretik prestatuta ekar dezake azterketariak, eta apunteak edo euskarri digitaleko materialak erabil ditzake. Aurkezle-rola izango duenez, azterketariak aukera izango du epaimahaikideei erakusteko erabiltzen ari den materiala (nahiz ez den nahitaezkoa).
2. **Elkarrizketa:** azterketariak epaimahaikoen galderi erantzungo die eta haiek eskaturiko azalpenak emango ditu (7-8 minutu). Epaimahaikoen azterketariaren jakintza-arloarekin edo gaiarekin zerikusia duten galderak egingo dizkiote azterketariari.

Azken emaitza behin-behinekoa: 2021eko ekainaren 7an, argitaratuko dira azterketaren emaitzak (behin-behinekoak): arratsaldeko 14:00etan iragarriko da Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordetzaren iragarki-taulan eta webgunean, web-lotura honetan:

<https://www.ehu.es/eu/web/euskara/probak-urratsez-urrats>

Azterketaren berrikuste edo berraztertzea: Azterketaren **hirugarren zuzenketa bat eskatu** nahi duen azterketariak hartarako eskaria egingo du Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordetzan 2021eko ekainaren 7tik 11ra (helbide honetara idatziz: maite.atxikallende@ehu.es). Azterketak ekainaren 14tik 16ra bitartean ikusi ahal izango dira, epaimahaia hirugarren zuzenketa eskatu dutenei adierazitako lekuan eta orduan. Azterketa ikusteko bakarrik izango da egun hori, eta ez erreklamazioak egiteko.

Behin betiko emaitzak: 2021eko ekainaren 17an argitaratuko dira Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordetzaren iragarki-taulan eta webgunean, web-lotura honetan:

<https://www.ehu.es/eu/web/euskara/probak-urratsez-urrats>

UPV/EHU-KO EUSKARA ZERBITZUA

